

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Familia, balioak eta duintasuna

Familia. Pelikulak bere harremana faltsutzea eta horrela gatazken lantzea saihestea aukeratzen duen familia baten istorioa kontatzen du. Iraganeko bizipen eta sentimendu oro irudi publikoaren tiraniaren menpe dago.

Balioak. Istorioak baliorik gabeko pertsonaiak erakusten ditu. Egia, errespetua, elkarriketa eta konfiantza praktikan jartzeko ez dira gai eta beren arteko desberdintasunak ahozko eta gorputz-indarkeriaren bidez konpontzen saiatzen dira behin eta berriz.

Duintasuna. Pelikulak *insistentzialismoa* deskribatzen du galdutako duintasuna berreskuratzeko bizitzako jarrera gisa. Hori da protagonistari bere ahaleginean ez etetea ahalbidetzen dion bitarteko nagusia laguntasunaren babesak huts egiten duenean.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Doluari buruz: Zer da dolua? Zer gertatzen zait doluan? Nola egiten du ibilbide hori? Jarraitu al dezaket neure bizitzarekin honi aurre egin gabe?
- Indarkeriari buruz: Zer egin dezakegu jarrera biolentoak lantzeko? Non sortzen da indarkeria? Zergatik erantzuten dugu indarkeriarekin?
- Abusuari buruz: Nola kokatzen naiz abusu baten aurrean? Zergatik? Ze ondorio dakartzat abusu batek? Nahiko al da salaketa legalarekin?

...pelikula ikusi ondoren

- Nola hartzen ditu aitak Christianen hitzak? Semeak egiaren mintzaldia irakurrir izan ez balu barkamena eskatu izango zukeela uste duzu? Zergatik?
- Zer gertatzen zaio Michaeli? Zergatik erabiltzen du indarkeria? Aldaketarik somatzen al duzu beregan? Ama zergatik da bere senarraren gaiztakerien konplize? Bere jarrera justifika daiteke?
- Liskarraldi bakoitzaren aurreran, nola erantzuten dute gonbidatuek? Horrela jokatu al zenuke horrelako ospakizun batean?
- Zerbait ospatzen al da pelikulan? Zergatik?

Itxasne Etxeberriaren laguntzarekin.

Celebración

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Festen.

URTEA: 1998.

IRAUPENA: 105 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: Thomas Vinterberg.

AKTORE-ZERRENDA: Henning Moritzen, Ulrich Thomsen, Thomas Bo Larsen, Birthe Neumann, Trine Dyrholm, Paprika Steen, Helle Dolleris.

EKOIZPEN-ETXEA: DR TV Drama / SVT Drama / Nordisk Film.

Sinopsia

Klingenfeldtarrak, Danimarkako goi-mailako burgesiako familiako kideak, akatsik gabeko ibilbidea eta izena duen patriarkaren, hirurogeigarren urteurrena ospatzera doaz. Nolanahi ere, bere hiru seme-alabak, beren artean oso deberdinak diren arren, prest daude aukera aprobetxatuz familiako trapu zaharrak argitara ateratzeko.

Cine para **vivir y convivir**

Celebración

Cada familia tiene su propio secreto...

Una película de Thomas Vinterberg

celebración

festen. dogma nº 1



baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gatazken eta Gatazken Erantzaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

943-251005

www.baketik.org